



## Zerbitzu publikoen erabiltzaileen datu-base korporatiboa

### Zer da zerbitzu publikoen erabiltzaileen datu-base korporatiboa?

Zerbitzu Publikoen Erabiltzaileen Datu Base Korporatiboa herritarren harremanetarako datu-basea da, zerbitzu publiko eta prozedura guztietarako komuna.

### Derrigorrezko erabilera

Informazio-sistema guztiek erabili beharko dute datu-base korporatibo hori, herritar hartzaileen kolektiboa zein den alde batera utzita.

Harremanetarako datuak interesdunek ematen dituzte, komunikazioak eta jakinarazpenak kanal hauetan jaso ahal izan ditzaten:

- **Aurrez aurreko kanala:** posta bidezko komunikazio eta jakinarazpenetarako beharrezkoak diren datuak, kanal hau aukeratzen duten eta administrazioarekin bitarteko elektronikoen bidez erlazionatzera behartuta ez dauden pertsona fisikoen kasuan.
- **Kanal elektronikoa:** egoitza elektronikoa agertuz egingo diren komunikazio eta jakinarazpen elektronikoaerako beharrezko datuak, gailu elektronikoa edo posta elektronikoko helbidea barne.


### Aldez aurreko berariazko baimena

Pertsona fisikoen kasuan, aldez aurretik berariazko baimena eman behar da, datu pertsonalak babesteko legerian eskatutakoaren ondorioetarako.

### Erabiltzaileen datu-base korporatiboaren edukia

Datu-base korporatiboak harremanetarako informazio hau dauka:

- a) Izena, abizenak.
- b) Nortasun-agiri nazionala edo identifikazio-agiri baliokidea pertsona fisikoentzat.
- c) Pertsona juridikoen izena edo sozietatearen izena eta identifikazio fiskaleko zenbakia.
- d) Komunikazio-hizkuntza.
- e) Komunikazio- eta jakinarazpen-kanala.
- f) Telefono mugikorraren zenbakia eta helbide elektronikoa bat, jakinarazpenen abisuetarako.



Interesdunek beren titulartasuneko datuak eskura ditzakete, eta edozein unetan alda edo ezaba ditzakete. Datu horiek herritarren karpeta Nire profila aukeran daude, Nire karpeta.

Administrazioak nortasuna kontsultatzeko eta egiaztatzeko zerbitzua erabiliko du erabiltzaileak emandako nortasun-datuen egiazkotasuna egiaztatzeko.

Egoitza elektronikoa sartzea: [www.euskadi.eus/nirekarpeta](http://www.euskadi.eus/nirekarpeta)